

Ikasle euskaldun eleanitzak jomuga

Kontseiluak maiatza hasieran ikasle euskaldun eleanitzak sortzeko proposamena plazaratu du eta hainbat hezkuntza eragilek egin du bat txostenarekin. Mahai-inguruan bildu ziren eragileok txosteneko edukiaz hausnartzeko. Han esandakoak jaso ditugu hemen.

ONINTZA ENBEITA

Argazkia: Iñigo Azkona

EUSKO JAURLARITZAKO Hezkuntza Sailak *Hezkuntzak irakatsi eta ikasteko markoa EAE* izeneko proposamena aurkeztu du. Kontseiluari eskatu diote proposamenari ekarpena egiteko eta Kontseiluak *Ikasle euskaldun eleanitzak sortzen. Urrats bat aurrera* izeneko txostena aurkeztu du. Ekarpene horretan, egungo irakaskuntzako ereduaren sistema gainditu eta helburu berriak aztertu dituzte. Horrela, A, B eta D ereduaren gainetik, Derrigorrezko Lehen Hezkuntza amaitzerako eleanitzak izango diren ikasleak lortzea da helburua.

Maiatzaren zortzian egin zuten txostenaren aurkezpena Deustuko Unibertsitatean (Bilbo, Bizkaia). Bertan izan ziren txostena babestu duten hezkuntza erakundeak: Euskal Herriko Ikasleek Gurasoen Elkarteak (EHIGE), Hik Hasi, Sortzen-Ikasbatuak, Kristau Eskolak eta Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak. Ekarpene euren atxikimendua emateko arrazoiak aztertu zituzten mahai-inguruan EHIGeko Ana Eizagirrek, Sortzen-Ikasbatuazeko Julen Etxeberriak, Kristau Eskoletako Mikel Ormazabalak eta Ikastolen Elkarteak Koldo Tellituk.

Txostenarekin bat egiteko arrazoi bat baino gehiago aipatu zuten parte hartzaileek, baina hitz bat azpimarratu



Ezkerretik eskuinera, Xabier Mendiguren, Koldo Tellitu, Ana Eizagirre, Arantxa Urbe, Julen Etxeberria eta Mikel Ormazabal.

zuten batez ere: ebaluazioa. “Ea orain ikastetxeak ebaluaketa plangintza huts bihurtuko garen”, esan zuen Ana Eizagirrek. Bai berak eta bai besteek esan zuten, ikastetxeek autonomia gehiago behar dute, ebaluazio sistema etengabeak ito egiten dituelako askotan.

Ikastetxeen autonomia beharra

Kontseiluaren ekarpenarekin bat datoz eskola kristauak. “Helburuak zeintzuk diren zehaztu eta haiek lortzeko medioak jarri behar ditugu”. Azaldu zuenez, orain arteko ereduak zenbait sentsibilitate sortu dituzte hizkuntzen gaian eta pauso bat gehiago emateko ordua da honezkerok. Orain arteko helburua elebitasuna izan da, baina orain “ikasle eleanitzak lortu nahi ditugu”, esan zuen. “Ikastetxei autonomia eman behar zaie proiektu linguistikoa. Diagnostika egin behar da eta inguru soziolinguistikoa aztertu. Diagnostika hori ondo egin eta proiektua ondo garatu ezik, pikutara joan daiteke”. Lurralde guztietan ez gaudela egoera berean esan zuen Ormazaba-

lek. “Helburuak malgutasunez lortu behar ditugu, inposatu gabe. Ea nola, era orekatuan, lortzen dugun gizarteko eragile guztien inplikazioa euskararekiko harremanetan”.

Ikastolen Elkarteak ez du hezkuntza sisteman egun dagoen elebitasuna bultzatzen euskara delako kaltetua. Hala esan zuen Tellituk. Kontseiluak egindako ekarpenari egokia deritzo helburu berriak lortzeko. “Derrigorrezko Lehen Hezkuntza amaitzen dutenean, gazteek ez dituzte beharrezko hizkuntza helburuak betetzen. Hori koherentzia eta batera lortu behar dugu ikastetxe guztiok”, azaldu zuen Tellituk. Dena den, onartu zuen badela hizkuntza normalizaziorako planik ez duen ikastetxe asko oraindik.

Tellitoren arabera, “neurriak eta ardurak banatu behar dira, baina lege berria behar dugu. Egungo bitartekoei ez goaz inora. Dekretuz egin daitezke gauza asko —ebaluaketa orokorra, irakasleen prestakuntza...—, baina herritarrekiko konpromisoa daukagu”. Ikasle eleanitzak lortu nahi badira,

Kontseiluak proposatzen dituen neurriak ezinbestekoak dira Tellituren ustez; eta hala ere, agian ez direla nahiko izango esan zuen. Neurriak aurrera eramateko derrigorrezko eta borondatzeko lanaren beharra aipatu zuen.

Ereduen politika hamar urtean gainditzeko moduan

Etxeberriak baina, ez du uste halako eskubideak borondatearen esku utz daitezkeenik. “Arriskutsua” izan daitekeela esan zuen. “Epeak jarri behar dira, nahiz eta gero mugitu beharra izan. D ereduan programa aplikatzeko zailtasunik ez genuke izango, eta B ereduan ere lehengo zikloa eleaniztasun proposamenak txertatzeko moduan dago. A ereduan txertatzea izango litzateke zailena, eta hala ere 8-10 urtetan ereduen politika gainditzeko moduan egon gaitezke. Epeak jarri behar ditugu. Muga bat jarri behar dugu ikasle guztiak izan daitezen euskaldun eleanitzak”.

“Hiruko gobernuaren akordioan agertzen dira hainbat proposamen. Gure proposamenek ezezko borobilik ez dute jaso, baina legearen zain gaude”

KOLDO TELLITU

Eizagirreraren arabera ereduen epeak, irakaslea erreziklatzeko epeak... agortuta daude. Gainera, bestelako neurririk hartu gabe epe horiek luzatu izana salatu zuen. Berak ere onartu zuen epe bera ez izatea ikastetxe eta inguru guztietarako, baina honezkero eginda egon behar luketen hainbat gauza ikusten ditu. “Kontuan hartu behar da ikastetxe bakoitzaren errealitatea, baina EAEen ez dago arrazoirik irakasle osoa euskalduna ez izateko Haur Hezkuntzan”. EHIGEko kidearen arabera, “ikastetxe bakoitzak badaki zein neurri behar dituen, baina ez dira neurriok planteatzen. Helburuak jarri jartzen dira, baina gero elebitasunik ere ez da lortzen. Irakasleko publikoan irakasle euskaldunik ez badaukagu, ezin dugu ezer egin”.

Ormazabalaren arabera, ikastetxeen konpromisoa oso garrantzitsua da. Oinarriak adostu behar dira. Kristau

Eskoletako kideak argi ikusten du helburuak jartzerakoan giza baliabideak eta materiala beharrezkoak direla. “Sei urtetik hona ez zen kontratatu behar irakasle erdaldunik. Jar ditzagun baliabideak irakasleen prestakuntza lantzeko. Pauso berri honetan ezin ditugu lehengo porrotak izan”.

Baikor agertu zen Tellitu: “Helburuekin bat gatoz, eta aplikazioan asmatu behar dugu. Ebaluazioa obsesiboki planteatzen dute egun: egun berean, ordu berean... hori beste era batera egin behar litzateke, eta emaitza izan beharko litzateke ikastetxe bakoitzarentzat erreferentzia”. Hala ere, ebaluazioaren garrantzia kasu batzuetan ezin da saihestu: “Ikastereduak desgertzen doazela badiogu, nora goazen jakiteko ebaluatu egin behar dugu dagoena, baina ebaluazio glotobiografikoa proposatu behar da”.

Zain egotearen kontra dago Ikastolen Elkarteak kidea. “Ikastetxearen, sarearen... gure eskuetan dagoenarekin aurrera egin behar dugu. Gero administrazioa datorrela? Hobeto. Izan ere, hiruko gobernu akordioan agertzen dira hainbat proposamen hezkuntzaz. Gure proposamenek ezezko borobilik ez dute jaso, baina legearen zain gaude”.

Etxeberriaren arabera, Kontseiluaren txostena gizarteratzea presio bidea da eta beharrezkoak dira halako bideak. Izan ere, administrazioa astiro doa, eta ikastetxeetan zenbait beharrian argi dituzte. Gainera, gehienek argi daukate ereduen sistema zaharkituta dagoela. Eizagirrek esan zuen, haurren eskubideak defendatzen ari direla ikasle euskaldun eleanitzen planteamenduekin, eta ez direla ari ezer inposatzen. “Herri honetan haurrek hizkuntza bi ikasteko aukera dute, eta gurasoak ez dira inor hori ukatzeko. Beste gauza bat da ama hizkuntzari lekua egin behar zaiola eskolan eta gurasoek eskatzea ama hizkuntzatik abiatuta indartzeko ikaslearen eleaniztasuna”. ■

Errenteriako Ekitaldia Maiatza

Euskara Zerbitzua

Udako Euskal Unibertsitateko diru-laguntzak eskatzeko epea bat etorriko da UEUK berak matrikulaziorako ezartzen duen epearekin. Eskaera orria Euskara Zerbitzuan edo udaletxeko web orrian eskuratu daiteke.

Informazioa:

euskara@errenteria.net

Telf. 943 44 96 13



**euskara
zerbitzua**
errenteriako udala